IBARRAKO UDALA GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA	**Espedientea:** / Expediente:	Kontratazio administratiboa: prozedura irekia **2023WKPI0004**
	Sarrera-erregistroa.: / Registro de entrada:	000000 -
	Titularra: / Titular:	IBARRAKO UDALA
	Ordezkaria: / Representante:	
	Gaia: / Asunto:	KALE GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA

IBARRAKO KALE GARBIKETAKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATAZIOA.

-BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA-

- Prozedura irekia -

CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA EN IBARRA

- PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS –

- Procedimiento abierto -

ARLO SUSTATZAILEA/ ÁREA PROMOTORA: OBRA ETA ZERBITZUAK/OBRAS Y SERVICIOS

ESPEDIENTE KODEA/ CÓDIGO EXPEDIENTE: 2023WKPI0004

1.- HELBURUA

Baldintza teknikoen Plegu hau Ibarrako Udalerrian bideak garbitzeko zerbitzua emateko da eta bere helburua lehiaketaren oinarriak eta ondorengo kontratua zehaztea da.

Zerbitzua gauzatzeko eremua eranskin planoetan ageri dena da, eremu hori zabal badaiteke ere plegu administratiboen 25. artikuluaren arabera.

2.- AZALPENAK

ESKUZKO EKORKETA: herri bideak eskuzko bitartekoekin garbitzea (objektuak, paperak, plastikoak, kristalak, hostoak, zigarro-puntak, hautsa, gorotzak eta bestelakoak jaso) : erratza, erratz handia, pala eta eskuzko orga.

EKORKETA MEKANIKOA: herri bideak bitarteko mekanikoekin garbitzea (objektuak, paperak, plastikoak, kristalak, hostoak, zigarro-puntak, hautsa, gorotzak eta bestelakoak jaso): erratz-makina, putzegilea…

1.- OBJETO

El objeto del presente Pliego de Condiciones Técnicas para la prestación de los Servicios de limpieza viaria en el término municipal de Ibarra, es definir las bases del Concurso y el marco del posterior contrato.

El ámbito territorial de la prestación será el que se especifica y señala en los planos adjuntos, sin perjuicio de que dicho ámbito sea ampliable en base al artículo 25 del pliego administrativo.

2.- CONCEPTOS

BARRIDO MANUAL: Se entiende como barrido manual la limpieza da la vía pública (recogida de objetos, papeles, plásticos, cristales, hojas, colillas, polvo, excrementos y cualquier otro residuo) con medios manuales como escobas, escobón, pala y carro manual.
BARRIDO MECÁNICO: Se entiende como barrido mecánico la limpieza de la vía pública (recogida de objetos, papeles, plásticos, cristales, hojas, colillas, polvo, excrementos y cualquier otro residuo) con medios mecánicos como barredoras, sopladores, etc.

ESKU2b86e3e1-f3a1-4e39-8d57-5ad0964472eb

EKORKETA MISTOA: bitarteko mekanikoak eta eskuzkoak erabiltzea, herri bidean dauden objektuak, paperak, plastikoak, kristalak, hostoak, zigarro-puntak, hautsa, gorotzak eta bestelakoak jasoz.

BALDEOA: herri bidea kamioi-zisterna batekin ureztatzea.

MAHUKATZEA: herri bidea garbitzea ur presioa duten mahukekin bai kamiotik bai ur-hargunetik.

FREGATZEA/PISTOLATZEA: herri bidea ur-pistolarekin garbitzea ur bero edota hotzarekin, pistola-ahoan kupula bat ezarriz azalera berdinago garbi daiteke.

DESINFEKTATZEA: produktu desinfektatzaileak erabiltzea.

BELAR ZIKINAK KENTZEA ZOLADURA ETA AREKATIK: belarrak kentzea zoru publikotik, areketatik, espaloi artetik eta fatxadetatik, haur parkeetatik .

BARRIDO MIXTO: Se entiende como barrido mixto la utilización de medios manuales y mecánicos para la recogida de objetos, papeles, plásticos, cristales, hojas, colillas y cualquier otro residuo que se encuentren en la vía pública.
BALDEO: Se entiende como baldeo el regado de la vía pública.
MANGUEADO: Se entiende como mangueado la limpieza de la vía pública con mangueras de agua a presión bien desde el camión de baldeo y/o bocas de riego.
FREGADO/PISTOLEADO: Se entiende como pistoleado la limpieza de la vía pública con pistola de agua a presión caliente y/o fría. Colocando una cúpula en la boca de la pistola se puede realizar el fregado más uniforme de la superficie.
DESINFECCIÓN: Se entiende como desinfección el uso de productos desinfectantes.
ELIMINACIÓN DE HIERBAS Y HIERBAJOS EN CUNETAS Y PAVIMENTO: Consiste en desbrozar y eliminar toda la zona de suelo público, cunetas, parques infantiles, juntas entre aceras y fachadas en las que crezca este tipo de vegetación.

3.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUA.

Zerbitzua egunero emango da, astelehenetik larunbatera, urteko igande eta jaiegunak kenduta. Halere, festetan eta emakidadunari, aparteko egoerengatik zerbitzua emateko eskatzen zaionean, zerbitzu hori eman egin beharko da. Plegu honetan daude adierazita egoera horiek.

Astelehenetik larunbatera eskuzko ekorketa eta mekanikoa egingo da herri osoko espaloi edota galtzadatan gutxienez hurrengo puntuetan adierazitako maiztasunarekin.

3.1. EREMU ETA MAIZTASUNAK

Hauek dira eremu eta maiztasunak:

3.- SERVICIOS A PRESTAR

De forma ordinaria, el servicio se prestará diariamente de lunes a sábado, quedando excluidos los domingos y festivos, durante todo el año, salvo en fiestas y en los supuestos que la concesionaria sea requerido para prestar el servicio como consecuencia de situaciones extraordinarias a las que hace referencia el presente pliego.

Entre el lunes y el sabado se realizará el barrido manual/mecánico de aceras y/o calzadas del municipio, con las frecuencias establecidas en los siguientes puntos.

3.1. ZONAS Y FRECUENCIAS

Las zonas y frecuencias se indican a continuación:

ESKU2b86e3e1-f3a1-4e39-8d57-5ad0964472eb

A) <u>OHIKO ZERBITZU ARRUNTA</u>:

Urtean zehar egiten da, lanegunetan, astelehenetik larunbatera, eguneroko, asteroko edo hamabostean behingo maiztasunarekin. Zerbitzu hau, planoetan jasota dago.

Lan hau egiteko, ordutegi zehatz bat ez bada ezartzen ere, lehentasuna ematen zaio goizez egiteari; eta zarata egiten duen makinekin egiten diren lanen hasiera txandaka egingo da auzo edo kale desberdinetan, sortzen diren kalte akustikoak direla eta.

1.- ASTELEHENETIK OSTIRALERA GARBITU BEHARREKO EREMUAK: (ikus 1.1 eta 1.2 planoak)

<u>Eguneroko eremua</u>: 13.000 m2

Euskal Herria kalea herriaren sarreratik Txumitxara, San Bartolome plaza, kultur etxeko aurrealdea (Euskal Herria 44-46), Emeterio Arreseko haurreskola gunea (Uzturpe) San Ignacio (Kukumiku), Euskal Herria 8 zk.ko haur-parkea .

2.- ASTEAN BEHIN GARBITU BEHARREKO EREMUAK (ASTELEHEN ETA OSTIRAL BITARTEAN): (ikus 1.1 eta 1.2 planoak)

<u>1 eremua</u>: 19.300 m2

Emeterio Arrese, San Ignacio, Idoiaga anbulatorioraino, Euskal Herria 2 eta 4 arteko pasabidea, Beheko-Bide, Euskal Herria 12 ataripea eta ondoko terraza, Euskal Herria 8tik Idoiagarako pasabidea, Euskal Herria 16 eta 18 atzealdea, bidegorria San Inaziotik Azkueko biribilguneraino, haur-parkeak eta helduentzako gimnasia tokia Emeterio Arresen.

<u>2 eremua</u>: 20.300 m2

Euskal Herria Txumitxatik Ibai Gaineraino, Ibai

<u>A) SERVICIO ORDINARIO HABITUAL</u>:

El que se realiza a lo largo del año, durante todos los días laborables, de lunes a sábado, con la periodicidad diaria, semanal o quincenal. Este servicio se encuentra recogido en los planos adjuntos.

Para la prestación de este servicio si bien no se establece un horario concreto, se considera prioritario que se realice el trabajo por las mañanas, alternando el inicio de limpieza que se realiza con maquinaria ruidosa por distintas zonas por motivos de impacto acústico.

1.- ZONAS A LIMPIAR DE LUNES A VIERNES: (ver plano 1.1 y 1.2)
-

<u>Zona diaria</u>: 13.000 m2

C/Euskal Herria desde entrada al municipio hasta Txumitxa, Plaza San Bartolome, zona delantera de casa de cultura (Euskal Herria 44-46), zona guarderías de Emeterio Arrese (Uzturpe) y San Ignacio (Kukumiku), parque infantil de Euskal Herria 8.

2.- ZONAS A LIMPIAR UNA VEZ POR SEMANA (ENTRE LUNES Y VIERNES): (ver plano 1.1, 1.2 y 3)

<u>Zona 1</u>: 19.300 m2

Emeterio Arrese, San Ignacio, Idoiaga hasta ambulatorio, paso entre Euskal Herria 2 y 4, Beheko-Bide, porches de Euskal Herria 12 y terraza posterior, paso de Euskal Herria 8 hacia Idoiaga, Trasera de Euskal Herria 16 y 18, bidegorri desde San Ignacio hasta rotonda de Azkue. Parques infantiles y zona gimnasia para mayores de Emeterio Arrese.

<u>Zona 2</u>: 20.300 m2

Euskal Herria desde Txumitxa hasta Ibai Gain, C/

ESKU2b86e3e1-f3a1-4e39-8d57-5ad0964472eb

Gain kalea, Uzturre, Arantzazuko Ama, Zaldune, Zaldune atzealdea eta bidegorria Zaldune-Azkue.

3 eremua: 16.700 m2

Otarreaga kalea, Apatterreka, Leaburu igoera , hilerri eremua.

4 eremua: 17.300 m2

Euskal Herria 3-17atzealdea, Julian Gaiarre, Argindegi, Iturburu, Jesus Guridi, eta kanpoko igogailu ondoko eskailerak.

5 eremua: 25.500 m2

Euskal Herria 59 zk.tik de Azkueko birilbilguneraino, Azkue auzoa, hilerrirako eskailerak, kiroldegiko kanpoaldea eta eskailerak, kiroldegiko aparkalekua, ikastolako aparkalekua, sarbidea eta barruko patioa.

6 eremua: 3.000 m2

Izaskun auzoko merenderoa : paperak, zabor-poltsak jasoko dira astero maiatz, ekain, uztail, abuztu eta irailean; eta hamabostero urteko gainontzeko hilabeteetan.

Atal hauetan azaldutako auzoak astean behin bakarrik garbitzen direnez, belarrak kendu egin beharko dira, batez ere, udaberrian, gehien hazten diren garaian, eta saretak garbiak mantenduko dira, batez ere, udazkenean.

Garbiketa hidrogarbigailuarekin eta beste batzuk: (ikus 3 planoa eta gainontzekoak)

Garbiketa hauek astelehenetan, jai eguna izan ezik, goizean lanaldi osoan egingo dira urte guztian zehar, eta 3. planoan jasotako eremuak eta udal zerbitzuek agindutakoak egin beharko dira.

Ibai Gain, Uzturre, Arantzazuko Ama, Zaldune, trasera de Zaldune y bidegorri zaldune-Azkue.

Zona 3: 16.700 m2

Calle Otarreaga, Apatterreka, subida a Leaburu, zona cementerio.

Zona 4: 17.300 m2

Zona trasera de Euskal Herria 3-17, Julian Gaiarre, Argindegi, Iturburu, Jesus Guridi, y escaleras junto a ascensor exterior.

Zona 5: 25.500 m2

Desde Euskal Herria 59 hasta rotonda de Azkue, barrio Azkue, escaleras hacia cementerio, polideportivo todo el exterior y escaleras, aparcamiento de polideportivo, ikastola aparcamiento, acceso y patio interior.

Zona 6: 3.000 m2

Zona de merendero del barrio de Izaskun. Se retirarán papeles, bolsas y basura en general en la zona de merendero del barrio de Izaskun semanalmente en los meses de mayo, junio, julio, agosto y septiembre, y cada quince días el resto de los meses del año.

Puesto que la limpieza de los barrios indicados en estos apartados es únicamente semanal, deberá incidirse en la eliminación de hierbas, sobre todo en primavera, que es cuando más crecen, y en la limpieza de rejillas en otoño.

Limpieza con hidrolimpiadora y otros (plano 3 y resto)

La limpieza con pistola se irá ejecutando los lunes no festivos por la mañana a jornada completa durante todo el año, teniendo que cubrir las zonas recogidas en el plano 3 como mínimo, así como las que se indique por los servicios técnicos municipales.

ESKU2b86e3e1-f3a1-4e39-8d57-5ad0964472eb

a) Presio pistolarekin haur-parkeak udaberrian edo udal zerbitzu teknikoek eskatzen dutenean.

- San Bartolome
- Arantzazuko Ama
- Emeterio Arrese
- San Inazio
- Euskal Herria 8
- Azkue 3-6
- Euskal Herria 45

b) Presio pistolarekin edota fregatu kupularekin espaloiak, plazak, plaza txikiak, eskailerak… baldin eta zikinkeria erantsia badago. Gutxienez, planoak jasotako eremuak, eta udalak zehaztu ditzakeen beste gune batzuk, beharren arabera. Indartu beharko da zerbitzu hau zuhaitz-azpiko eremuetan, erretxina dagoenetan, toki ospeletan edo irristakorrak diren eremuetan. **Zehazki San Inazio 6 inguruko zuhaitz gunea eta Zaldune atzea gutxienez urtean 4 aldiz garbitu beharko da, eta San Inazio 6 zbk.ko plaza txikia, Kukumiku haurtzaindegiaren aurrean, urtean bitan).**

c) Presiodun pistolarekin fatxadak eta hormak udal zerbitzu teknikoek eskatutakoan. (Ibai Gain, San Ignacio…).

d) Ibai ondoko hormatxoak (Ibai Gain, San Inazio…).

Udal zerbitzu teknikoek eskatu ahal izango dute azalera handiko zonetan, hala nola plazetan, lan horiek astean behin egin beharrean egun jarraituetan egitea, garbiketak gehiegi ez luzatzeko (adibidez: Azkue, Idoiaga...).

3.- HAMABOSTERO GARBITU BEHARREKO EREMUAK (ASTELEHEN ETA OSTIRAL BITARTEAN): (ikus 1.1 eta 1.2 planoak)

- Apatta industrialdea

a) Limpieza con pistola a presión a fondo de parques infantiles en primavera, o cuando lo consideren los servicios técnicos municipales.

- San Bartolome
- Nª Sra de Aranzazu
- Emeterio Arrese
- San Ignacio
- Euskal Herria 8
- Azkue 3-6
- Euskal Herria 45

b) Limpieza con pistola a presión y/o cúpula de fregado de aceras, plazas y plazoletas, escaleras, etc en las que hay suciedad incrustada. Mínimo zonas indicadas en plano todos los años y otras zonas que podrá determinar el Ayuntamiento según necesidades. Se tendrá que incidir en la limpieza de zonas bajo árboles, zonas sombrías y resbaladizas. **En concreto se limpiará la zona arbolada de San Ignacio nº 6 y la zona trasera de Zaldune mínimo cuatro veces al año, y la plazoleta de San Ignacio 6, delante de la guardería Kukumiku, dos veces al año.**

c)Limpieza con pistola a presión de fachadas y muros cuando así lo requieran los técnicos municipales.

d) Limpieza muretes junto al río (Ibai Gain, San Ignacio…).

Los servicios técnicos municipales podrán exigir que en el caso de zonas de gran superficie, como plazas, etc, se realicen estos trabajos en días seguidos en lugar de una vez por semana, para no alargar demasiado en el tiempo las limpiezas (por ejemplo: Azkue, Idoiaga…)

3.- ZONAS A LIMPIAR UNA VEZ CADA 15 DÍAS (ENTRE LUNES Y VIERNES): (ver plano 1.1 y 1.2)

- Polígono Apatta
- Escaleras de acceso a cementerio.

ESKU2b86e3e1-f3a1-4e39-8d57-5ad0964472eb

- Hilerrirako eskailerak
- Leaburu errepideko aparkalekua
- Jesus Guridi kirolgune-frontoia
- Arkupeak Euskal Herria 1-17 , 4-12 y 16-18

4.- LARUNBATERO GARBITU BEHARREKO EREMUAK (ikus 2 planoa)

Euskal Herria kalea Ibai Gaineraino, San Inazio, Emeterio Arrese parkea eta bidegorria, San Bartolome plaza, Kultur-etxeko eremua. Oro har, jende gehien dabilen tokiak.

B) <u>OHIKO ZERBITZU PUNTUALA</u>:

Urtean behin edo bitan egiten dena.

1.- URTEAN BITAN GARBITU BEHARREKO EREMUAK: (ikus 3 planoa)

- Hilerrirako bide berria Emeterio Arrese 4-6 atzealdetik.

- Ikastola sarrera ondoko eskaileretan arekak garbitzea .

- Erreka ondoko eremu berdeak (Idoiaga: 1840 m², Txumitxa zubia : 50 m², Emeterio Arrese bidegorria: 750 m²).

- Hondakinen ekarpen-guneak (Izaskun eta Apatta industriagune biribilgune ondoa)

2.- URTEAN BEHIN GARBITU BEHARREKO EREMUAK:

- Izaskungo bidea eta Bizkaietxetik Orietara doan bidea garbitu bazterretako desbrozea egiten denean (maiatza edo ekaina). 4.800 m2.

3.- EKITALDI PUNTUALEI LOTUTAKO GARBIKETAK:

Zerbitzua, eragindako eremuan emango da eta

- Aparcamiento Cra. Leaburu
- Zona deportiva-frontón Jesus Guridi
- Fregado de soportales de Euskal Herria 1-17 , 4-12 y 16-18

4.- ZONAS A LIMPIAR LOS SÁBADOS: (ver plano 2)

Los sábados se limpiará la C/Euskal Herria hasta Ibai Gain, San Ignacio, zona parque Emeterio Arrese y bidegorri, Plaza San Bartolomé, zona casa de cultura. En general, las zonas de mayor tránsito.

<u>B) SERVICIO ORDINARIO PUNTUAL</u>:

El que se realiza con una frecuencia de una o dos veces al año.

1.- ZONAS A LIMPIAR DOS VECES AL AÑO: (ver plano 3)

- Nuevo camino de acceso a cementerio por trasera de Emeterio Arrese 4-6

- Recogida de basura de cuneta junto a escaleras de acceso a ikastola.

- Zonas verdes junto al río (Idoiaga: 1840 m², puente Txumitxa: 50 m², bidegorri Emeterio Arrese: 750 m²).

- Zonas de aportación de residuos (Izaskun y junto rotonda Apatta industrialdea).

2.- ZONAS A LIMPIAR UNA VEZ AL AÑO:

Limpieza de camino a Izaskun y de Bizkaietxe a Orieta cuando se realice el desbroce de bordes (mayo o junio). 4.800 m2.

3.- LIMPIEZA VINCULADA CON EVENTOS PUNTUALES

El servicio se prestará en las zonas afectadas

ESKU2b86e3e1-f3a1-4e39-8d57-5ad0964472eb

udalak zehaztuko dio emakidadunari.

Urteko apirilaren 30 baino lehen, udalak jakinaraziko dio emakidadunari jai horiek noiz izango diren.

Zerbitzu hauek esleitutako prezioaren barnean daude eta egin behar dira plegu honetan eta erantsitako planoan ezarritakoaren arabera.

Astelehenetik larunbatera, garbiketa bereziak egin behar direnean aurreko ospakizunak direla eta, lehenik jaietako gunea garbituko da, planoetan adierazi bezala, ondoren, jaien ondorioz udal arduradunek beharrezkotzat jotzen dituzten guneak garbituko dira (botiloi gune berriak…), eta azkenik, ohiko zerbitzuko guneak.

Ekitaldien egutegia

1.-Izaskungo Jaia: Jaiaren hurrengo egunean.

2.-Gazte festa: Ekainean, asteburuan, ostiral, larunbata eta igandea. Larunbata, igandea eta astelehenean garbituko da. (ikus 5 planoa)

Lehendabizi Ibai Gain kalea eta Uzturre auzoa garbituko dira, ondoren San Bartolome plaza, Arantzazukoa Ama eta Zaldune. Ondoren Euskal Herria kalea Ibai Gain kaleraino eta azkenik, bidegorria, Ibarrako sarreratik, Idoiaga auzotik, San Bartolome plazaraino. Plegu honetan azaltzen ez den eremuren bat garbitzea beharrezkoa balitz, garbitu egingo da.

Beharrezkoak diren baliabideak erabiliko dira lanaldi amaierarako guztia garbia gera dadin. Baldin eta, festetako egitarauan jasotako ekitaldi batek eremu jakin bat garbituta beharko balu ordu jakin batean, udalak enpresari jakinaraziko dio, honek garbiketa antolatu dezan.

por el evento que se celebra, que será señalado por el Ayuntamiento a la concesionaria.

Antes del 30 de abril de cada año el Ayuntamiento facilitará a la concesionaria el calendario de celebración de las citadas fiestas en que debe realizarse la limpieza.

Estos servicios se encuentran incluidos en el precio de adjudicación debiendo realizarse las tareas de limpieza especificadas en el presente pliego, y en los planos adjuntos a este Pliego.

Los días de lunes a sábado en los que haya que realizar limpiezas especiales debido a las fiestas, primero se limpiará la superficie indicada en los planos referentes a las fiestas y, después se procederá a limpiar las zonas que debido a las fiestas los responsables municipales consideren que necesiten ser limpiadas (nuevas zonas de botellón, etc) y finalmente las zonas correspondientes al servicio ordinario habitual.

Calendario de eventos

1.- Fiestas de Izaskun: Al siguiente día de su celebración.

2.- Gazte festa: En el mes de junio, fin de semana viernes, sábado y domingo; se limpiará sábado, domingo y lunes. (ver plano 5)

Se limpiará primero la calle Ibai Gain y el barrio Uzturre, después la plaza San Bartolomé, Arantzazuko Ama y Zaldune. Después la calle Euskal Herria hasta la calle Ibai Gain y finalmente el bidegorri desde la entrada de Ibarra, por Idoiaga hasta la plaza San Bartolomé. En caso de que hiciera falta limpiar alguna otra zona no prevista en el presente pliego, también se limpiará.

Se utilizarán los medios necesarios para que al finalizar la jornada quede todo limpio. En caso de que, debido a los eventos incluidos en el programa de fiestas, alguna zona tuviera que estar limpia para una hora concreta, el

ESKU2b86e3e1-f3a1-4e39-8d57-5ad0964472eb

Gazte festatan garbiketa egokia bermatzeko zerbitzua zabaldu egingo da: ohiko hiru langileez gain, lau gehiago lanaldi osoan. Gainera baldeagailu bat eta bigarren urezko garbigailua larunbat eta igandean.

3.- San Juan eguna: San Bartolome plaza eta inguruak, igandea bada, hurrengo egunean garbituko da.

4.- San Bartolome jaiak: Abuztuan, jaiak irauten duen bitartean, biharamunean, jaieguna barne (ikus 6 planoa).

Lehendabizi San Bartolome plaza garbituko da, San Bartolome kalea, Arantzazuko Ama kalea eta Zaldune, eta ondoren Ibai Gain kalea eta Uzturre auzoa. Ondoren Emeterio Arreseko parkea, Euskal Herria kalea Azkueko bidegurutzeraino, bidegorria, Ibarrako sarreratik, Idoiaga auzotik, San Bartolome plazaraino, Euskal Herria 26-32 atzeko plaza, eta azkenik, San Inazio 6ko plazatxoa. Plegu honetan azaltzen ez den eremuren bat garbitzea beharrezkoa balitz, garbitu egingo da.

Beharrezkoak diren baliabideak erabiliko dira lanaldi amaierarako guztia garbia gera dadin. Baldin eta, festetako egitarauan jasotako ekitaldi batek eremu jakin bat garbituta beharko balu ordu jakin batean, udalak enpresari jakinaraziko dio, honek garbiketa antolatu dezan.

Garbiketa egokia bermatzeko zerbitzua zabaldu egingo da San Bartolome jaietan: ohiko hiru langileez gain, lau gehiago lanaldi osoan. Gainera baldeagailu bat, bigarren urezko garbigailua eta bigarren erratz-makina jarriko dira

ayuntamiento informará de ello a la empresa con el objeto de que se organice la limpieza adecuadamente.

Para garantizar la correcta limpieza, se aumentará el servicio en “Gazte Festa” donde se incorporará además de los tres trabajadores habituales, 4 trabajadores más en jornada completa, y se pondrá una baldeadora y una segunda hidrolimpiadora el sábado y domingo.

3.- Día de San Juan: Limpieza plaza San Bartolomé y alrededores, si es domingo se limpiará el siguiente día.

4.- Fiestas patronales de San Bartolomé: En el mes de agosto, durante el tiempo que duran las mismas y al siguiente día, incluyendo festivos. (Ver plano 6).

Se limpiará primero la plaza San Bartolomé, calle San Bartolomé hasta el polideportivo, calle Arantzazuko Ama y Zaldune y después la calle Ibai Gain y el barrio Uzturre. Después el parque de Emeterio Arrese, la calle Euskal Herria hasta el cruce hacia el barrio Azkue, después el bidegorri desde la entrada de Ibarra, por Idoiaga hasta la plaza San Bartolomé, la plaza detrás de los nº26-32 de la calle Esukal Herria, y finalmente la plazoleta de San Ignacio nº 6. En caso de que hiciera falta limpiar alguna otra zona no prevista en el presente pliego, también se limpiará.

Se utilizarán los medios necesarios para que al finalizar la jornada quede todo limpio. En caso de que, debido a los eventos incluidos en el programa de fiestas, alguna zona tuviera que estar limpia para una hora concreta, el ayuntamiento informará de ello a la empresa con el objeto de que se organice la limpieza adecuadamente.

Para garantizar la correcta limpieza, se aumentará el servicio en fiestas de San Bartolomé donde se incorporará además de los tres trabajadores habituales, 4 trabajadores más

ESKU2b86e3e1-f3a1-4e39-8d57-5ad0964472eb

garbitu beharreko egun bakoitzean.

5.- Iraileko azoka: irailean, ospakizunaren egunean (igandea) 16:00etik aurrera San Bartolome plaza garbituko da. Hurrengo egunean, Emeterio Arreseko parke inguruko simaurra kendu eta eremua ondo garbituko da (ikus 7 planoa).

6.- Zehaztu gabeko beste jai batzuk: Beti antolatzen ez diren jaiak edo ekitaldiak dira, hala nola garagardo azoka, Azkue auzoko jaiak, San Inazio jaiak, etab.

Ekitaldiaren eremua eta inguruak behar bezala garbitzen direla bermatzeko, zerbitzua indartu egingo da jaiaren ondorengo egunetan, iraupenaren arabera.

C) ZERBITZU BEREZIAK:

Ohiko zerbitzuez gain, udalak honako zerbitzuak betetzea eskatu ahal izango dio enpresari:

1. Zerbitzu bereziak:

Zerbitzu honetakoak dira festa , ospakizun ...aurreko garbitasunak. Emakidadunak egin beharrekoak dira baina ez daudenak aurreko atalean, eta, beraz, esleitutako preziotik kanpo.

1.- Kasu berezietan (Festak, ospakizunak...) emakidadunak egingo du garbitasuna, udalak zehaztutako eremuan, udalak 8 egun aurretik abisua emanez, beharrezko langileak antolatu ahal izateko.

en jornada completa, y se pondrá una baldeadora, una segunda hidrolimpiadora y una segunda máquina barredora cada día que haya que limpiar.

5.- Feria de septiembre: En el mes de septiembre, el mismo día de su celebración (domingo) a partir de las 16:00 horas se limpiará la plaza San Bartolomé. Al siguiente día, se retirará el estiercol de la zona del parque de Emeterio Arrese y se limpiará toda la zona. (Ver plano 7)

6.- Otras fiestas sin definir: Se trata de fiestas o eventos que no siempre se organizan, tales como feria de la cerveza, fiestas del barrio Azkue, fiestas de San Ignacio, etc.

Para garantizar la correcta limpieza de la zona del evento y alrededores se reforzará el servicio en los días posteriores, en función de su duración, a la celebración de la fiesta.

C) SERVICIOS EXTRAORDINARIOS:

A parte de los servicios ordinarios, el Ayuntamiento podrá solicitar la realización de los siguientes servicios:

1.Servicios extraordinarios:

Este tipo de servicios incluye la limpieza ante fiestas, eventos etc, que la concesionaria deberá cubrir realizando el servicio, pero que no se encuentran incluidos en la lista del apartado anterior, y por lo tanto, fuera del precio de adjudicación.

1.- En el caso de situaciones extraordinarias (fiestas, eventos etc), la concesionaria deberá realizar la limpieza de la zona que indique el Ayuntamiento, comprometiéndose éste a avisar a la concesionaria, con una antelación mínima de 8 días, a fin de que pueda organizar los equipos humanos que vayan a acometer el trabajo.

ESKU2b86e3e1-f3a1-4e39-8d57-5ad0964472eb

2.- Lanak zerbitzuaren ordutegiaren barruan egiten badira, eta zerbitzura atxikitako langileekin, ez dira aparte ordainduko. Zerbitzuaren ordutegitik kanpo egin behar badira kontratistak aurkeztutako unitateko prezioaren arabera ordainduko dira udalak hala eskatuta.

2. Larrialdi zerbitzuak:

1.- Enpresa emakidadunak larrialdiko lanetan lagunduko du.

2.- Larrialdi-zerbitzutzat hartzen dira ur-uholdeek, lur-jausiek eta, oro har, ohiz kanpokotzat jo daitezkeen guztiek eragindako egoeretan eman behar direnak.

3.- Lanak zerbitzua emateko ordutegiaren barruan eta zerbitzuari atxikitako langileekin egiten badira, lan horiek ez dira aparte ordainduko. Lan horiek zerbitzua emateko ordutegitik kanpo egin behar badira, kontratistak aurkeztu beharko dituen unitate-prezioen arabera ordainduko dira, eta prezio horiek kontratista behartuko dute, Udalak lan horiek egiteko agindua ematen badio.

3 . Eskuhartze azkarreko zerbitzua:

1.- Enpresa lizitatzaileek beren proposamenetan antolaera bat aurkeztuko dute, horrelako egoeretan azkar esku hartzeko.

2.- Zerbitzu hau emango da Udalaren ustez azkar erantzun beharreko interes publikoko

2.- Si los trabajos se realizan dentro del horario de prestación del servicio y con el personal adscrito al servicio, estos trabajos no se abonarán aparte. Si fuera necesario realizar estos trabajos fuera del horario de prestación del servicio se abonarán de acuerdo a los correspondientes precios unitarios que deberá presentar la contratista, los cuales obligarán a la contratista en el supuesto de que el Ayuntamiento le confíe la realización de dichos trabajos.

2. Servicios de emergencia:

1.- La empresa concesionaria colaborará en los servicios de emergencia.

2.- Se consideran servicios de emergencia aquéllos que deban prestarse ante situaciones producidas a causa de inundaciones de agua, derrumbes de tierras y en general, todas aquellas que puedan calificarse como extraordinarias.

3.- Si los trabajos se realizan dentro del horario de prestación del servicio y con el personal adscrito al servicio, estos trabajos no se abonarán aparte. Si fuera necesario realizar estos trabajos fuera del horario de prestación del servicio se abonarán de acuerdo a los correspondientes precios unitarios que deberá presentar la contratista, los cuales obligarán a la contratista en el supuesto de que el Ayuntamiento le confíe la realización de dichos trabajos.

3. Servicio de rápida intervención de limpieza viaria:

1.- Las personas o empresas licitadoras formularán en sus propuestas, la organización del servicio de modo que permita la realización de rápidas intervenciones de limpieza viaria.

2.- La prestación de este servicio se hará en aquellas situaciones de interés público que requieran, a juicio del Ayuntamiento una

ESKU2b86e3e1-f3a1-4e39-8d57-5ad0964472eb

egoeretan, herri bideetako garbiketako berehalako edo ustekabeko arazoari irtenbidea emateko.

3.- Horrelako egoeretan emango da zerbitzu hau, besteak beste:

- Herri bidearen garbiketa istripu baten ondoren.

- Herri bidetik hilda dauden animaliak kentzea. Hauek udal zerbitzu teknikoek zehaztutako lekuan utziko dira ondoren dagokion kudeaketa egiteko.
- Isurketak herri bidean.
- Esku-hartze azkarra eskatzen duten egoerak: edozein produktu isurtzea, bandalismo ekintzaren ondorengo zikinkeria…

4.- Lanak zerbitzuaren ordutegiaren barruan egiten badira, eta zerbitzuko langileekin, ez dira aparte ordainduko. Zerbitzuaren ordutegitik kanpo egin behar badira kontratistak aurkeztutako unitateko prezioaren arabera ordainduko dira udalak hala eskatuta.

5.- Lan hauek enpresa adjudikaziodunaren arduragabekeriagatik eginbeharko balira (makinaren olio ixurketa, etb…) , lan horiek egin ondoren, aurreikusitako zerbitzu arruntarekin jarraituko da, horiek amaitu arte, eta inolaz ere ez dira ordainduko arduragabekeriaren ondoriozko lanetan emandako orduak.

* **Zerbitzuaren lan ordutatik kanpo egingo diren lanei dagozkien prezio unitarioak:**

Aparteko zerbitzuetan aurreikusitako kasuetarako, presako eta esku-hartze azkarrekoetan non garbiketa lanak egin behar diren ohiko ordutegitik kanpo, ordu horiek

actuación rápida y eficaz para dar solución a problemas inmediatos o imprevistos de limpieza viaria.

3.- A título solo indicativo, estos servicios atenderán a situaciones como las siguientes:

-Limpieza de la vía pública a causa de accidentes.
- Retirada inmediata de animales muertos de la vía pública. Éstos se depositarán en el lugar que al efecto señalen los servicios técnicos municipales para su posterior gestión.
- Limpieza de vertidos en la vía pública.
-Operaciones que exijan rápida intervención: derrames de cualquier clase de producto, ensuciamiento como consecuencia de actos de vandalismo en la vía pública, etc.

4.- Si los trabajos se realizan dentro del horario de prestación del servicio y con el personal adscrito al servicio, estos trabajos no se abonarán aparte. Si fuera necesario realizar estos trabajos fuera del horario de prestación del servicio se abonarán de acuerdo a los correspondientes precios unitarios que deberá presentar la contratista, los cuales obligarán a la contratista en el supuesto de que el Ayuntamiento le confíe la realización de dichos trabajos.

5.- Si estos trabajos tuvieran que hacerse por neglicencia de la empresa contratista (derrame de aceite de maquinaria, etc…), una vez realizados estos trabajos se continuará con el servicio ordinario previsto hasta finalizarlo y en ningún caso se abonarán las horas dedicadas a las labores derivadas de la negligencia.

* **Precios unitarios para los trabajos que se realicen fuera del horario de prestación del servicio:**

Para los casos previstos en los servicios extraordinarios, de emergencia y de rápida intervención, en los que hubiera que realizar trabajos de limpieza fuera del horario de

ESKU2b86e3e1-f3a1-4e39-8d57-5ad0964472eb

kontratuaren preziotik kanpo leudeke eta kontratistak, plegu honetan ezarritakoaren baitan aurkezturiko banakako prezioen arabera ordainduko lirateke.

3.2. GARBIKETAREN XEHETASUNAK

Hauek dira lizitatzaileek emango dituzten zerbitzuak, 3.1 atalean adierazitako eran eta maiztasunarekin:

1.- Kaleak, pasabideak, plazak, auzoetarako sarbideak barne, garbi egongo dira, dena delako zoladura dutela ere garbiketa mekanizatuaren bidez, eskuz nahiz mistoa, pistolarekin presiozko ura erabilita, desinfekzio eta guzti.

2.- Zuhaitz-txorkoak, eskailerak, pasabideak, ataripeak, arkupeak, kultur etxeko arkupea garbi egongo dira eta zaborrak biltzeko gunetan hondakinak kenduta. hondarrak garbitzea. Parkeetako eta lorategietako zaborrak, poltsak, gorotzak eta katuei utzitako janak ere garbituko dira.

3.- Herri bidean dauden paperontziak hustu egingo dira, herri bideko paperontziak garbi mantenduko dira.

4.- Sare, sareta, kainu-zulo, sifoi, kutxatilak garbitzea , eta baita urak saneamendu sarearekin lotzen dituzten elementuak ere garbi egongo dira, lokatz eta hostorik gabe, betiere bermatuz ura bere bidetik doala butxadurarik sortu gabe.

Buxaduraren bat egongo balitz edo saretak nahiz kutxatilak puskatuta udalari jakinaraziko zaio ahalik eta azkarren.

5.- Hostoak erortzen diren garaian hobeto

prestación del servicio, estos trabajos se abonarían de acuerdo a los correspondientes precios unitarios que deberá presentar la contratista, en base al presente pliego.

3.2. DETALLE DE LIMPIEZA

Los servicios que comprenderán la oferta de las licitadoras serán en general, y con la frecuencia indicada en el punto 3.1, los siguientes:

1.- Las calles, paseos, y plazas, incluido los accesos a barrios urbanos deberán estar limpias, sea cual sea el pavimento y el estado del mismo, mediante barrido mecanizado, manual o mixto, mangueo, pistoleado con agua a presión y desinfección.

2.- Los alcorques, escaleras, pasadizos, soportales, porches, porche de la casa de cultura deberán estar limpios y retirados los residuos en el perímetro de los puntos de recogida de basuras. También se retirarán de los parques y jardines todos los papeles, bolsas, objetos, excrementos, comida que se deja a los gatos, etc.

3.- Deberá realizarse el vaciado selectivo de las papeleras instaladas en la vía pública, su mantenimiento y limpieza constante de las mismas.

4.- Las rejillas, rejas, imbornales, sifones, arquetas, así como todo tipo de elementos de conexión de las aguas superficiales con la red de saneamiento deberán estar limpias, sin hojas ni barro garantizando que el agua discurra correctamente para evitar atascos e inundaciones.

En caso de atasco, una vez realizada la limpieza, mal funcionamiento, rotura de rejillas y/o arquetas deberá notificarse la incidencia al Ayuntamiento a la mayor brevedad.

5.- En la temporada de caída de hojas se deberá tener un mayor control. Se emplearán los medios

ESKU2b86e3e1-f3a1-4e39-8d57-5ad0964472eb

begiratu beharko da. Beharrezko giza eta material bitartekoak erabiliko dira eta areka nahiz hustubideak hobeto garbituko dira, burtxadura sor baitaiteke bestela.

6.- Herri altzariak garbi egongo dira (pegatinak…). Pankarta eta kartelak kentzea iragartzen duten ekitaldia amaitutakoan.

7.- Eremu pribatuak, publikoak erabiltzekoak direnak, garbi mantenduko dira.

8.- Haur-parkeak garbi egongo dira. Zulatzeko elementu guztiak kenduko dira, hala nola, kristalak…ebakiak edo kalteak sor ditzaketenak.

9.- Aparteko ospakizun bat dela eta egin beharreko garbiketa, udalak hala eskatuta.

10.- Kaletatik berehala kendu beharko dira eskaleek utzitako zaborra, baita herri bideko gorotzak ere.

11.- Herri bideetan esku-hartze azkarra egingo da honelako kasuetan: istripuren bat gertatu bada, hildako animaliaren bat baldin badago, isurketak, bandalismo ekintzak eta beste batzuk.

12.- Elurteetan udal lantaldeari laguntzeak izango du lehentasuna elurra bide publikoetatik kentzeko lanetan.

13.- Txakurren gorotzentzako zakarrontziak hustea.

14.- Belar zikinak kentzea zoladura eta arekatik: belarrak kentzea zoru publikotik, arekatik,

técnicos y humanos apropiados al volumen de hojas que se acumulan en el municipio y se intensificará la limpieza de cunetas y sumideros, habida cuenta de la importancia que en la obstrucción de los mismos tienen estos residuos.

6.- El mobiliario urbano deberá estar limpio (pegatinas, etc). Se retirarán pancartas y carteles una vez pasada la fecha del evento que anuncian.

7.- Los espacios privados que son de uso y disfrute público deberán estar limpios.

8.- Los parques infantiles deberán estar limpios. Se deberán retirar todos los objetos punzantes como cristales, que puedan producir daños o cortes.

9.- Limpieza motivada por cualquier otro evento especial que se organice y del que dará cuenta el Ayuntamiento a la concesionaria.

10.- Se deberá retirar de la vía pública, de carácter inmediato, los restos depositados por los indigentes. También se retirarán los excrementos que se encuentren en la vía pública.

11.- Se realizarán servicios de rápida intervención de limpieza viaria, tales como causados por accidente, retirada de animales muertos de la vía pública, limpieza de vertidos, ensuciamiento como consecuencia de actos de vandalismo en la vía pública y otros.

12.- En ocasión de nevadas será prioritario el apoyo a la brigada municipal en los trabajos de retirada de nieve de la vía pública.

13.- Vaciado de papeleras dispuestas para excrementos caninos.

14.- Eliminación de hierbas y hierbajos en toda la zona de suelo público, cunetas, juntas entre aceras y fachadas en las que crezca este tipo de

ESKU2b86e3e1-f3a1-4e39-8d57-5ad0964472eb

espaloi artetik eta fatxadetatik.

15.- Elurte edo izozteetan nahiz eurite eta uholde edo luizietan zerbitzua egoerara egokituko da eta udaleko langileekin koordinatuko da.

16.- Ohiko zerbitzua, zerbitzu puntuala, aparteko zerbitzua, larrialdiko zerbitzua, azkar esku-hartzekoa, 3.1.C. art.an jasotakoak.

17.- Ibarrako udalak egoki jotzen duen beste edozein zerbitzu.

4.- ZERBITZUAREN OINARRIZKO BALDINTZAK

1.- Garbiketa lanak egitean kontu izango da ahalik eta gutxien eragitea inguruko pertsona eta ondasunei.

2.- Kontu izango da, halaber, behe oineko etxebizitzetako leihoekin, zorutik gertu daudenekin, espaloiak garbitzean.

3.- Kontu izango da espaloiak pistolaz garbitzean, dendetako eskaparateak ez zikintzeko.

4.- Hostoak dauden garaian aretak eta hustubideak ongi garbituko dira euri-urekin buxadurarik sor ez dadin.

5.- Kontratistak 24 orduko larrialdi telefonoa izango du, urtean 365 egunez udal zerbitzuetako abisuak, erreklamazioak eta jarraibideak jasotzeko. Ohar horiek erregistro batean jasoko dira, noiz egin ziren (eguna eta ordua) eta zertarako izan ziren adierazita.

vegetación.

15.- En situación de nevadas y heladas y también cuando haya fuertes lluvias e inundaciones, derrumbes de tierras, el servicio se adaptará a dicha situación y se coordinará con los medios de personal del Ayuntamiento.

16.- Servicio ordinario habitual, servicio ordinario puntual, servicios extraordinarios, de emergencia y de rápida intervención recogidos en el punto 3.1.C

17.- Cualquier otro trabajo relacionado con el servicio que el Ayuntamiento de Ibarra considere oportuno.

4.- PREMISAS BÁSICAS DEL SERVICIO

1.- Los trabajos de limpieza se realizarán teniendo especial cuidado en afectar lo mínimo posible a las personas y bienes del entorno.

2.- Se tendrá especial cuidado en la limpieza de aceras donde se encuentren ventanas de viviendas de planta baja situadas a poca distancia del suelo.

3.- Se tendrá especial cuidado a la hora de pistolear aceras junto a accesos y escaparates de locales comerciales.

4.- En época de hojas se deberá tener especial cuidado con las cunetas y sumideros para evitar atascos en caso de fuertes lluvias.

5.- La contratista dispondrá de un teléfono de urgencias 24 horas, 365 días año, para atender los avisos, reclamaciones e instrucciones que se reciban por parte de los Servicios Municipales. Estas comunicaciones serán anotadas en un registro que incluirá las órdenes transmitidas, el origen de las mismas, la fecha y la hora en la que se efectuaron.

5.- INSTALACIONES (ver plano 4)

ESKU2b86e3e1-f3a1-4e39-8d57-5ad0964472eb

5.-INSTALAZIOAK (ikus 4 planoa)

